


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2013ko abuztua

Euskal AEko industri jarduera %6,4 murriztu zen 2013ko abuztuan

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2013ko uztailarekin alderatuta %0,5 gehitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2013ko abuztuan %6,4 murriztu zen Euskal AEko industria produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2012ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %0,5 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, 2013ko uztailarekin alderatuta.



Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2013ko abuztuko indizearen bilakaerak den-denen jaitsierak erakusten ditu, 2012koaren aldean. Energia %4,4 jaitsi da, Ekipo-ondasunak %9,8; Bitarteko ondasunak %5,5, eta Kontsumo-ondasunak %3,0. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %14,0 jaitsi dira eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %0,2 hazi.

Hil artean, 2013ko abuztua uztailaren aldean, Bitarteko ondasunak %3,7 hazi dira, eta Kontsumo-ondasunak %2,8. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %2,9 hazi dira eta Kontsumo-ondasun iraunkorrak %2,5. Energia %0,1 jaitsi da, Ekipoko ondasunak %4,3.

Euskal industrian pisu handienetako bi sektoretan hazkundeak ditugu 2013ko abuztuan aurreko urteko hil beraren aldean: Elikagai industriak, edariak eta tabakoa %6,1 hazi da eta Garraio materiala %2,4.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-8,1
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-4,1
09 - Kautxua eta plastikoak	-7,7
13 - Makineria eta tresneria	-13,1
14 - Garraio-materiala	2,4
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	6,1
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-8,3
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-13,0

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Makineria eta ekipoa %13,1 gutxitu da, Zura, papera eta arte grafikoak %13,0, eta Material eta ekipa elektrikoa %8,3 urte artean.

Lurraldeetan, Industri Produkzioaren Indizearen abuztuko urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan: Araban %0,7 jaitsi zen, Bizkaian %9,4 eta Gipuzkoan %5,1. Hil artean, Araban %+2,4, Bizkaian %+0,6, Gipuzkoan %-0,6, 2013ko uztailaren aldean.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hazkunde-tasak. 2013 abAbuua. Behin-behineko datuak

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Abu2013 / Abu2012	M(Abu2013) / M(Abu2012)*	Abu2013 / Uzt2013	Uzt2013 / Eka2013
Indize orokorra				
Euskal AE	-6,4	-3,8	0,5	-0,7
Araba/Álava	-0,7	-4,6	2,4	-2,0
Bizkaia	-9,4	-4,2	0,6	0,1
Gipuzkoa	-5,1	-3,0	-0,6	-0,8
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-3,0	-5,3	2,8	-2,5
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-14,0	-6,9	2,5	-0,4
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,2	-4,6	2,9	-3,4
Ekipo-ondasunak	-9,8	-4,5	-4,3	0,0
Bitarteko ondasunak	-5,5	-4,3	3,7	-0,2
Energia	-4,4	1,6	-0,1	-0,8

(*) 2013ko urtarrietik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2012ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua